



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 8a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, LGTBI kolektiboarendako arreta-zerbitzuaren kalitatea bermatzeko neurriei buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, 2018an zerga-iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik egiazki bildu den diru-zenbatekoari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Esnearen Mahairako deialdiari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (4. or.).
- Galdera, bikote egonkorrei eragiten dien Foru Berriaren aldaketari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Erriberan lanpostuen behin-behinekotasunari aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Azkoengo oinarritzko osasun barrutian osasun-arreta egokia bermatzeko ezarri behar diren neurriei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Pitillasko kontsultategiko oinarritzko osasun-laguntzako ordutegia dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (6. or.).
- Galdera, herrigunean segurtasun- eta irisgarritasun-arazoak dituzten herrietako ikasleendako eskola-garraioari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, herritarren segurtasuneko zein drogaren aurkako jarduketak atzeritarren kontrolarekin uztartzen dituzten operazioetan Foruzaingoa elkarlanean aritzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Los Arcosko zirkuituaren finantza-egoerari eta instalazio horren etorkizuneko kudeaketari buruzko aurreikuspenaren gainekoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko geltokietan tren-txartelak saltzeko leihatilak ixteari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Foru Berrian xedatutakoaren arabera izatezko bikoteen erregistroa eratzeari buruzkoa eta araudi berria onetsi aurretik eratuak izanik 2019an eskritura publikoa egin ez duten bikoteetan araudi horrek duen eragin fiskalari buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak egin du (10. or.).

- Galdera, Nafarroa 5G teknologiatik kanpo geratu izanaren arrazoiei eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, adinekoentzako egoitza edo eguneko zentro batean toki publiko bat eskuratzeko itxarotzerrendari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen lehen eraikuntza-faseko Arga 4 proiektuaren egoerari eta kontratu-aldaketari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatutu berria garatzeaz orain arte ezagutzen diren lan-agiri guztietako artikuluetan Nafarroako Foru Komunitatea sartzeari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Castejón, Altsasu eta Tafallako tren geltokietan txartelak saltzeko eta bidaiariei arreta eskaintzeko leihatilak ixteari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Eusko Alderdi Jeltzaleak Nafarroako Foru Erkidegoari eskumenak eskualdatzea negoziatzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, PSOE eta EAJk Kongresuan sinatu duten legegintzaldi-akordioan Nafarroarentzat dauden aukerak ezagututa, Nafarroako Gobernuak lehendakariak zer ekimenetarako asmoa daukan jakitekoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Esako urtegiaren eskuin mazelaren eragin-eremuko herritarren segurtasunari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, elkarrizketan eta desberdinen arteko akordioan oinarrituta herriarentzat eta Nafarroarentzat berria izanen den garaiaren balorazioari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, LGTBI kolektiboarendako arreta-zerbitzuaren kalitatea bermatzeko neurriei buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera, LGTBI kolektiboarendako arreta-zerbitzuaren kalitatea bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berriki, Iruñeko Udalak iragarri du aldaketak egingen direla LGTBI kolektiboari arreta egiteko zerbitzuan; horien ondorioz, Harrotu-ko gaur egungo langileetako bi, gutxienez, kaleratuko dira. Horrek halaber ekarriko luke Kattalingune zerbitzu publikoa izatea orain aholkularitza juridiko eta sexologikoa eman beharko diena Iruñean bizi diren LGTBI pertsonen. Horregatik guztiatik:

LGTBI kolektiboari arreta egiteko zerbitzuaren kalitatea nola bermatzeko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2019ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, 2018an zerga-iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik egiazki bildu den diru-zenbatekoari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2018an zerga-iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik egiazki bildu den diru-zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Kontuen Ganberak Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruz egindako fiskalizazio-txostenak agerian utzi du ehuneko 61 hazi direla iruzur fiskalaren aurkako borrokatik eratorritako diru-sarrerak (170,11 milioi egiten dute). Hori ikusirik, galdera hau egin behar dugu: Iruzur fiskalaren aurkako borrokaren ondorioz 2018an detektaturiko diru kopurutik, zenbat da egiazki bildu dena?

Iruñean, 2019ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Esnearen Mahairako deialdiari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Esnearen Mahairako deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Batzordean izan ditugun azken lan bilkuretan, abeltzaintzaren sektoreak jakinarazi digu zein den gure abeltzainek bizi duten egoera.

Departamentuak ba al du asmorik Esnearen Mahaia biltzeko eta sektorearekin batera haren proposamenak eta beharrianak lantzen jarraitzeko?

Iruñean, 2019ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, bikote egonkorrei eragiten dien Foru Berriaren aldaketari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, bikote egonkorrei eragiten dien Foru Berriaren aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Legebiltzarren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Bikote egonkorrei eragiten dien Foru Berriaren aldaketa dela-eta Podemos-Ahal Dugu-ri iristen ari zaizkigun informazio-eskaera ugariak ikusirik, aldaketa horren nolako ezagutarazpena ari da Gobernua egiten, Foru Berriaren eguneratzearen argitaratze hutsaz harago?

Iruñean, 2019ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Erriberan lanpostuen behin-behinekotasunari aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Erriberan lanpostuen behin-behinekotasunari aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

CCOO sindikatuak Erriberako laneko behin-behinekotasuna % 90 ingurukoa dela salatu ondoren, zer neurri hartuko ditu Gobernuak kopuru horiei konponbidea emateko?

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Azkoiengo oinarrizko osasun barrutian osasun-arreta egokia bermatzeko ezarri behar diren neurriei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Azkoiengo oinarrizko osasun barrutian osasun-arreta egokia bermatzeko ezarri behar diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri zehatz ezarri nahi ditu Azkoiengo osasun eskualde oinarrizkoari atxikitako biztanleei osasun-arreta egokia bermatzeko?

Iruñean, 2019ko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Pitillasko kontsultategiko oinarrizko osasun-laguntzako ordutegia dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Pitillasko kontsultategiko oinarrizko osasun-laguntzako ordutegia dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Gobernu-akordioaren bederatzigarren puntuan jasota dagoen bezala, oinarrizko osasun laguntzaren estrategia ezarriko da, lurralde-ekitate hobetuz eta zerbitzuak deszentralizatuz, landa-ingurune biztanleriaren finkapena sendotzeko. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Zer neurri hartuko dira Pitillasko kontsultategiko oinarrizko osasun laguntzaren ordutegiari dagokionez?

Iruñean, 2019ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

Galdera, herrigunean segurtasun- eta irisgarritasun-arazoak dituzten herrietako ikasleendako eskola-garraioari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, herrigunean segurtasun- eta irisgarritasun-arazoak dituzten herrietako ikasleendako eskola-garraioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren elehun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Joan den abenduaren 12an, Zizur Nagusiko Udalak ziurtagiri bat igorri zuen Nafarroako Parlamentura, bai eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritzara ere, udal horretako udalbatzak onetsitako adierazpen instituzionalaren testuarekin.

Hartan, kasuko finantzaketa eskatzen da Ardoi auzotik eta Zizur Nagusiko alde zaharretik herriko ikastetxeetarako eskola-garraiorako, "halatan ber-

maturik ekitate, berdintasun eta doakotasun printzipioak, eta errazturik ikasleak udalerrian bertan erroturik egon daitezen".

Eskaera horren justifikazioa dira herriko ikastetxe publikoetara doazen adingabeek ibili behar izaten dituzten distantziak, ezen, gainera, Donejakue Bideko Autobidea (A12) zeharkatu behar izaten dute, zeinak erdibitu egiten baitu herria. Hala ber adierazten da ikasle horiek prezio altua ordaindu behar izaten dutela guraso-elkarteek antolaturiko eskola-garraioarengatik, edo ibilgailu partikularra erabili, egoera horrek trafikoari eta kutsadurari begira dakartzan ondorioekin.

Indarreko araudiak eskola-garraioaren ikasle onuradun gisa aitortzen ditu zenbait baldintza betetzen dituzten eta eskola-zonifikazioaren arabera dagokien ikastetxe publikoan eskolatzeko herriarteko garraioa beharrezkoa dutenak. Hala ere, baita herri baten barrenean ere irisgarritasun-problema badaude, arrazoi ezberdinak direla-eta. Hain zuzen, eskaera horrek aldezen zabala dauka ez Zizur Nagusian bakarrik, baita beste herri batzuetan ere, hala nola Tafallan edo Berriozarren, antzeko segurtasun- eta irisgarritasun-problema baitauzkate beren herrigunearen barrenean, autobideek edo trenbideek zeharkatuta baitaude.

Zer erantzun emanen da ikasle horientzako konparaziozko bidegabekeria gainditzeko eta ikastetxe publikoen irisgarritasuna errazteko?

Iruñean, 2019ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, herritarren segurtasuneko zein drogaren aurkako jarduketak atzerritarren kontrolarekin uztartzen dituzten operazioetan Foruzaingoa elkarlanean aritzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, herritarren segurtasuneko zein drogaren aurkako jarduketak atzerritarren kontrolarekin uztartzen dituzten operazioetan Foruzaingoa elkarlanean aritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santos Itoiz jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi argitaratu da iragan abenduaren 1ean Tuteran gauzatutako polizia operazio bati buruzko informazioa. Operazio horretan Foruzaingoak parte hartu zuen, beste kidego batzuen artean. Eman diren informazioen arabera, operazioa

abian jarri zen herritarren segurtasunaren eta aisialdiko jardueren arloko araudia betetzen ote zen ikuskatzeko, edukiera, adingabeak egotea, estupefazianteen kontsumoa eta Tabakoaren Legea bezalako alderdiei dagokienez.

Polizia operazioaren ondorioz adingabe bat detektatu zen eta droga-atzemateari buruzko hiru akta egin ziren. Gainera, zazpi pertsona atxilotu ziren Espainian modu irregularrean egoteagatik edo atzerritartasunaren arloko arau-hausteengatik.

Nafarroako SOS Arrazakeria bezalako elkarteek kexa aurkeztu dute Nafarroako Gobernuan polizia operazio baten xede gisa herritarren segurtasuna eta drogen kontrola atzerritartasunarekin zerikusia duten gaiekin eta administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak atxilotzearekin nahasteagatik; izan ere, horrek laguntzen du arrazakeria soziala zabaltzen eta populazioaren sektore jakin bat kriminalizatzen.

Hori dela eta, kontseilariari galdetzen diogu:

Uste al duzu Foruzaingoak parte hartu behar duela herritarren segurtasuna eta drogen aurkako jarduketak atzerritartasunaren kontrolarekin nahastu eta, horrenbestez, herritarren artean jarrera xenofoboak zabal ditzaketan dituzten operazioetan?

Iruñean, 2019ko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Los Arcosko zirkuituaren finantza-egoerari eta instalazio horren etorkizuneko kudeaketari buruzko aurreikuspenaren gainekoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Los Arcosko zirkuituaren finantza-egoerari eta instalazio horren etorkizuneko kudeaketari buruzko aurreikuspenaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Parlamentu honetako hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran, urtarrilaren 9an izatekoa den horretan, ahoz erantzun dakion.

Los Arcosko zirkuitua bete-betean krisi ekonomikoan eraiki zen, eta diru publikoaren xahutze

ikaragarria izan zen, noiz eta murrizketak egiten ari zirenean osasungintzan, hezkuntzan, gastu sozialean eta aurrekontuetan.

Bere garaian, Nafarroako Parlamentuak Los Arcosko zirkuiturako 6 milioi euroko gastua baimendu zuen; hots, proiektuko guztizko inbertsioaren ehuneko 10. Gainerako ehuneko 90ak inbertsiogile pribatuen kontura egina behar zuen izan. Alabaina, inbertsioaren ehuneko 95 diru publikoen kargura egin zen zuzenean edo zeharka, Sprin sozietate publikoaren bitartez.

Nafarroako Gobernuak berriki iragarri du administrazio publikoak kudeatuko duela titularitate publikokoa den Los Arcosko zirkuitua, emakidatzaileak 2020-2024 epean kudeaketa bere gain hartzeari uko egin ondoren.

Instalazio hori, titularitate publikokoa, kudeaketa publikokoa ere izan liteke.

Galdera:

Los Arcosko zirkuituaren egoera finantzarioari eta instalazio hori aurrerantzean kudeatzeaz Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

Iruñean, 2019ko abenduaren 31n

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko geltokietan tren-txartelak sal- tzeko leihatilak ixteari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko geltokietan tren-txartelak saltzeko leihatilak ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Renfe eta Adif-ek Espainiako ehun bat geltokietan txartel-salmentarako leihatilak ixtea erabaki ondoren, eta hedabideei esker Tafallakoaren itxieraren berri izanda, Podemos Ahal Dugu-tik honakoa jakin nahi dugu:

– Itxiera horiek Foru Komunitateko tren-geltoki gehiagotan ere izanen al dira?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Foru Berrian xedatutakoaren arabera izatezko bikoteen erregistroa eratzeari buruzkoa eta araudi berria onetsi aurretik eratuak izanik 2019an eskritura publikoa egin ez duten bikoteetan araudi horrek duen eragin fiskalari buruzkoa.

MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztutako galdera, Foru Berrian xedatutakoaren arabera izatezko bikoteen erregistroa eratzeari buruzkoa eta araudi berria onetsi aurretik eratuak izanik 2019an eskri-

tura publikoa egin ez duten bikoteetan araudi horrek duen eragin fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Virginia Magdaleno Alegría andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santos Itoiz jaunak urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Berri edo Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioan joan den urriaren 16an sartu ziren azken aldaketan arabera, bikote egonkorra osatzeko asmoa dokumentu publiko bidez adierazi duten bikoteak bakarrik hartu ahalko dira ezkontideen parekotzat, ondorio fiskaletarako.

Bestalde, Foru Berriko 106. Legeak aurreikusten du Bikote Egonkorren Erregistro Bakarria eratzeari etorkizunean, non izena eman beharko baitute hirugarrenendako publizitaterako ondorioetarako. Erregistro hori eratu gabe dago gaur egun.

Egungo araudiaren arabera, bakar-bakarrik bikote egonkor gisa dokumentu publiko bidez eratu diren bikote egonkorak, auzotasun zibil nafarra dutenak eta Nafarroako Foru Ogasuneko bikote egonkorren Erregistro fiskalean izen emanda daudenak, parekatuko dira ezkontideekin ondorio fiskaletarako. Gaur egun, baldintza horietako bat ez da betetzen, aipatu erregistroa eratu ez denez. Ukituriko bikoteek duten ziurgabetasuna ikusirik, honako galdera hau aurkezten da:

Nafarroako Gobernuak noiz eratu du Izatezko Bikoteen Erregistroa, Foru Berriak xedatuari jarraikiz, eta araudi horretako araubide berriak zer-nolako eragin fiskala izanen du araua onetsi aurretik jadanik erata egonda eskritura publikorik 2019an egin ez duten izatezko bikoteengan? Zehazkiago, 2020an PFEZ aitortzen bateratua egiteari dagokionez?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

Galdera, Nafarroa 5G teknologiatik kanpo geratu izanaren arrazoiei eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa 5G teknologiatik kanpo geratu izanaren arrazoiei eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik gelditu da Nafarroa 5G teknologiatik kanpo, orain arte programa pilotuetarako bi deialdiekin gertatu bezala, eta zer neurri hartuko ditu?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, adinekoentzako egoitza edo eguneko zentro batean toki publiko bat eskuratzeko itxarote-zerrendari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, adinekoentzako egoitza edo eguneko zentro batean toki publiko bat eskuratzeko itxarote-zerrendari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako ahozko galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak erantzun dezan:

Zer pentsatu du Eskubide Sozialetako Departamentuak zaharren itxarote-zerrendari konponbidea emateko, adinekoentzako egoitza batean edo eguneko zentro batean toki publiko bat eskuratzeari dagokionez?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroako Ubidearen lehen eraikuntza-faseko Arga 4 proiektuaren egoerari eta kontratu-aldaketari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen lehen eraikuntza-faseko Arga 4 proiektuaren egoerari eta kontratu-aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohe-siorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein dira Nafarroako Ubidea eraikitzeko lehen faseko Arga 4 proiektuaren egoera eta kontratu-aldaketa?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatutu berria garatzeaz orain arte ezagutzen diren lan-agiri guztietako artikuluetan Nafarroako Foru Komunitatea sartzeari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatutu berria garatzeaz orain arte ezagutzen diren lan-agiri guztietako artikuluetan Nafarroako Foru Komunitatea sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Gobernuak lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariak zer urrats egiteko asmoa dauka Nafarroaren errealitate instituzional eta konstituzionala defendatze aldera, ikusirik gure Foru Komunitatea aipatuta datorrela orain arte ezagutzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko estatutu berria garatzeko lan-dokumentu guztietako artikuluetan?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Castejón, Altsasu eta Tafallako tren geltokietan txartelak saltzeko eta bidaiariei arreta eskaintzeko leihatilak ixteari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Castejón, Altsasu eta Tafallako tren geltokietan txartelak saltzeko eta bidaiariei arreta eskaintzeko leihatilak ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, 2020ko urtarrilaren 10ean egingen den Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Dagoeneko hiru dira Nafarroan txartelak saltzeko eta jendeari arreta emateko leihatilak itxi dituzten tren geltokiak. Tafallako geltokian bidaiarientzako aurrez aurreko salmenta- eta informazio-zerbitzua itxi ondoren, urtarrilaren batetik aurrera Altsasuko eta Castejongo geltokiak ere itxiko dira.

Zerbitzu horrek herri horietako biztanleak ez ezik, inguruko herrietako bizilagunak ere artatzen zituen.

Argi dago neurri horiek disuasio-efektua eragiten dutela herritarrengan, distantzia labur eta ertaineko joan-etorrietarako garraiobide gisa trenbidea erabiltzeari dagokionez, eta horrek ibilgailu partikularren erabilera sustatzen du, eta, horrenbestez, ingurumenari eta ekonomiari kalte egiten die.

Geltoki horietan ADIFeko zirkulazioko langileek lan egiten zuten, eta beharrezkoa zen azpiegitura ere bazegoen; beraz, ez du inolako zentzurik zerbitzua kentzeak, autosalmentako makinekin eta online salmentarekin ordeztzeko, ez baitie pertsona guztien beharrei erantzuten.

Agerikoa da erabaki horiek ugariak direla AVE trenaren aldeko apustuan, eta estatuko gobernua-ren eta ADIFen sare konbentzionala bertan behera uzteak herriak trenbide-loturarik gabe utziko dituela.

Distantzia labur eta ertaineko trenbide-sarea modernizatzeke eta hobetzeko ekintzak eta inber-

tsioak beharrezkoak direnean, sarea eraisteko orduan murriztu eta aurrera egiten da.

Izquierda-Ezkerrak trenbide konbentzionalaren aldeko apustua egiten du, pertsonen mugikortasuna bermatuko duen zerbitzu publiko gisa. Egoera horrek asko kezkatzen gaitu, neurri horrek orain arte leihatiletan lan egiten zuten pertsonen enpleguan eta, nagusiki, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu publikoan izan ditzakeen ondorio negatiboengatik. Bidaiarien gertuko harreman pertsonalak desagertzeak ere kezkatzen gaitu; izan ere, pertsona bati txartela eskatu eta harekin zalantzak argitu beharrean, makina batekin konpondu beharko dira, eta egoera horrek eragina izanen du, halaber, herri horietako despopulazioan.

Zer jarrera du Nafarroako Gobernuak Castejón, Altsasu eta Tafallako tren geltokietan txartelak saltzeko eta bidaiariei arreta eskaintzeko leihatilak ixteari buruz, eta, beraz, zer ekintza egiteko asmoa du Nafarroako trenbide konbentzionalaren defentsaren alde, erabaki horri buelta emateko?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Eusko Alderdi Jeltzaleak Nafarroako Foru Erkidegoari eskumenak eskualdatzea negoziatzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Eusko Alderdi Jeltzaleak Nafarroako Foru Erkidegoari eskumenak eskualdatzea negoziatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iruditzen zaizu Eusko Alderdi Jeltzaleak Foru Gobernuaren ordezkari deza eta negoziatzea deza la Nafarroako Foru Erkidegoari eskumenak eskualdatzea?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, PSOE eta EAJk Kongresuan sinatu duten legegintzaldi-akordioan Nafarroarentzat dauden aukerak ezagututa, Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer ekimenetarako asmoa daukan jakitekoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, PSOE eta EAJk Kongresuan sinatu duten legegintzaldi-akordioan Nafarroarentzat dauden aukerak ezagututa, Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer ekimenetarako asmoa daukan jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak heldu den urtarrilaren 9ko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

PSOE eta EAJk Kongresuan sinatu duten legegintzaldi-akordioan Nafarroarentzat dauden aukerak ezagututa, zer ekimenetarako asmoa dauka Nafarroako Gobernuko lehendakariak?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Esako urtegiaren eskuin mazelaren eragin-eremuko herritarren segurtasunari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Esako urtegiaren eskuin mazelaren eragin-eremuko herritarren segurtasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuaren bitartez, Geoconsult España, Ingenieros Consultores enpresari eskatu zion Esako urtegiaren eskuin mazelaren egonkortasunari eta segurtasun-ebaluazioari buruzko azterlana egitea.

Txostena ezagutu ondoren eta lehendakariorde Remírez jaunak adierazi zuenez "Nafarroako Gobernuaren lehentasuna da urtegiaren eragin-eremuko herritarren segurtasuna bermatzea", Nafarroako Gobernuari gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten zaio:

Gogoan izanik ezen, aipatu txosteneko konklusio nagusiaren arabera, "Esako urtegiaren eskuin

mazela oreka zorrotzean dago"ela, hau da, segurtasun-faktorea 1en baliokidea duela, Gobernuaren iritziz bermatuta al dago urtegiaren eragin-eremuko herritarren segurtasuna?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, elkarrizketan eta desberdinen arteko akordioan oinarrituta herriarentzat eta Nafarroarentzat berria izanen den garaiaren balorazioari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, elkarrizketan eta desberdinen arteko akordioan oinarrituta herriarentzat eta Nafarroarentzat berria izanen den garaiaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Espanian gobernu berri bat, PSOEn gidaritzapean, eratzeko zorian dagoelarik:

Zer deritzozu gure herriarentzat eta Nafarroarentzat berria izanen den garai honi, zeina elkarrizketan eta desberdinen arteko akordioan oinarrituta baitago?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi